



# Gertuan

Fundazioa

## GURE HORIZONTEA

# 2023-2026



# GURE HORIZONTEA 2023-2026

## SARRERA

«Gertuan Fundazioa» irabazi-asmorik gabeko erakundea da, Gipuzkoako lurralde historikoan, babesgabetasun-egoeran dauden eta adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsona helduei, euren gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza ematen diena.

1983an sortu zenetik, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiek duten bizitza duina bermatzeko lan egiten du fundazioak.

Abenduaren 28an, fundazioak 40. urteurrena ospatuko du, eta plan estrategiko bat prestatu du bere esku-hartzea hobetu, autonomia sustatu eta adimen- edo garapen-desgaitasuna duten

pertsonentzako bizitza duina lortzen ahalegintzeko eta bermatzeko konpromisoarekin jarraitzeko.

Plan estrategikoak hainbat jarduera-ildo ditu, hala nola **autonomia sustatzea, Pertsonarengan Oinarritutako Plangintza (POP) metodologia aplikatzea, harreman esanguratsuak sortzea eta zerbitzuaren kalitatea neurtzea.**

Dokumentu hau idaztean, oso kontuan izan da inplikaturako eragile guztien parte-hartzea, bereziki desgaitasuna duten pertsonena, boluntarioena, profesionalena eta Patronatua osatzen dutenena. Era berean, garapen- edo adimen-desgaitasuna duten pertsonen alde lan egiten duten lurraldeko elkarreentako familien, gure erakunde




fundatzailea den «Atzegi», eta «Gipuzkoako Foru Aldundiaren» ekarpenak jaso ditugu.

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu prozesu honetan parte hartu duten eragile guztiei. Plan estrategiko hau martxan jartzeak desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatean eragitea eta gure esku-hartzea hobetzea espero dugu.

Jarraian, jarduera-ildoak, helburu nagusiak eta horiek lortzeko egin nahi duguna aurkezten dizkizuegu:

Gertu



**1.** Laguntzak  
ematen dizkiegun  
**pertsonak**

# 1. Laguntzak ematen dizkiegun pertsonak

*Pertsona autonomoagoak izan nahi dugu.*



## **Horretarako...**

pertsona guztiekin batera erabakiak elkarlanean hartzea bultzatuko dugu, eta etxebizitza-baliabideekin, okupazio-baliabideekin, gizarte-partaidetzarako baliabideekin modu eraginkorragoan koordinatuko gara.



etxebizitza-  
baliabideak



okupazio-  
baliabideak




gizarte-partaidetzarako  
baliabideak

**Laguntzen diguten pertsonak hurbil sentitu eta konfiantzazko harreman egonkorak izatea nahi dugu.**



### **Horretarako...**

degaitasuna duten pertsonekin, profesionalekin eta boluntarioekin elkartzeko denbora gehiago izango dugu.



elkartzeko  
denbora gehiago


# 1. Laguntzak ematen dizkiegun pertsonak

*Gure bizitzarako hartzen laguntzen diguten erabakiekin pozik egotea nahi dugu.*



## **Horretarako...**


desgaitasuna duten pertsonak gure jardueraren erdigunean jartzeko proiektuak sortuko ditugu.



pertsonak jardueraren  
erdigunean



***Gure laguntza-beharrak hobeto asetzeko,  
gu entzutea, ezagutzea eta ondo ulertzea nahi dugu.***



### **Horretarako...**


desgaitasuna duten pertsonen bozeramaile-talde bat aktibatuko da eta gobernu-organoan hitza emango zaie.



bozeramaile-  
taldea


# 1. Laguntzak ematen dizkiegun pertsonak

*Kalitatezko laguntzak jaso nahi ditugu erabakiak hartzerakoan.*



## **Horretarako...**

kexa eta iradokizunen postontzia mantendu eta aldizkako galdetegiak egingo zaizkie.



nola dauden  
galdetu eta ikertu

## **2. Fundazioaren** posizionamendua

## 2. Fundazioaren posizionamendua

**«Gertuan Fundazioaren» lana, gardentasunez eta kalitatez lan egiteagatik errekonozitzea nahi dugu.**



### **Horretarako...**

«Plena Inclusión» elkarteak duen kalitate ziurtagiriaren eredua landuko dugu eta errekonozimendu hau eskatuko da, autoebaluazio prozesuak eta etengabeko hobekuntzak sustatuz.




errekonozimendua  
eskatu

## *Inguruko elkarteekin konfiantzazko harremanak sustatu nahi ditugu.*



### **Horretarako...**

aldizkako topaketak eta erronka amankomunei buruzko talde lana  
sustatuko dugu.



topaketak eta  
talde lana sustatu

## 2. Fundazioaren posizionamendua

*Justizia-administrazioarekin lankidetzan aritu nahi dugu.*



### **Horretarako...**

gure lanari buruzko azalpen-dokumentuak sortuko ditugu, eta sustapen-proposamenak babestuko ditugu, laguntzaile edo bideratzailearen figura epaitegietan txertatzeko.




arlotan gure lana eta proposamenak aurkeztu

## ***Desgaitasuna duten pertsonen beren eskubideak aitortzea nahi dugu.***



### **Horretarako...**

hurbileko erakundeetako familien elkarten aldarrikapenekin bat egingo dugu, eragile politikoekin hitz egingo dugu eta eragin politikoa duten elkarten lan taldeetan parte hartuko dugu.



aldarrikatu, parte hartu eta negoziatu

# Gartuwan

azioa





# 3. Lan taldea

# 3. Lan taldea

*Gure langileak profesional hobeak izatea nahi dugu.*



## **Horretarako...**

prestakuntza-plan bat sortuko da, kanpoko espezialistekin ezagutzak areagotzeko lankidetzeta sustatu eta erabakiak hartzeko batzorde etiko bat sortuko dugu.



etengabeko prestakuntza  
eta aholkularitza

***Profesional motibatu eta konprometituak nahi ditugu,  
baita zainduak izango diren boluntario taldea ere.***



### **Horretarako...**

parte-hartze prozesuak, profesionalen eta boluntarioen arteko topaketak eta boluntarioekin bi urtean behineko topaketa berezi bat egitea bultzatuko dugu.



profesionalen eta boluntarioen  
arteko topaketak bultzatu


# 3. Lan taldea

*Desgaitasuna duten pertsonak, eurek nahi duten eta aukeratzen duten moduan bizitzea nahi dugu.*



## **Horretarako...**

bitza independenteko esperientziak eta/edo etxebizitzaren eremuan laguntza-eredu berriak sustatuko ditugu.




bitza independenteko  
esperientziak sustatu

## *Profesionalen lanen optimizazio handiagoa nahi dugu.*



### **Horretarako...**

digitalizatu daitezkeen zereginak ezarriko ditugu, denboraren kudeaketa hobetuz eta datu-baseak legedi berrira egokituz.



denboraren kudeaketa eta  
digitalizazioa hobetu

# 3. Lan taldea

*Behar duten pertsona guztiek laguntza-boluntario bat izatea nahi dugu.*



## **Horretarako...**

boluntarioak erakartzeko ahalegin handiagoa egingo da, «Gizalde» sarearekin lankidetzan arituko gara, eta desgaitasuna duten pertsonen inguruneak aztertuko dira, boluntario izan daitezkeenak detektatzeko.



pertsona boluntario  
berriak bilatu


# 4. Fundazioaren jasangarritasuna

# 4. Fundazioaren jasangarritasuna

*Proiektu berriak garatzeko, finantzaketa publikoa eta pribatua erakarri nahi dugu.*

## **Horretarako...**

Horretarako, dohaintza pribatuak erakartzea eta udalen finantzaketa sustatuko da.




finantzaketa publiko-pribatua  
areagotu



## ***Konfiantzazko lotura sendotu nahi dugu «Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (GFA)».***

### **Horretarako...**

esku hartzeko eredu propio bat zehaztuko dugu aldundiarekin adostuta. Legedi berrira egokitutako programa-kontratu bat eratuko da eta jarraipen bilerak egingo dira Aldundiarekin.



Foru Aldundiarekin  
konfiantzazko lotura sendotu



## **GFArekin Hitzartuta.**



## **EDEren lankidetzarekin prestatutako dokumentua.**

